

**“LEZO EKO-PARKE INDUSTRIALA” PROIEKTUA GARA DADIN LAGUNTZA TEKNIKOAREN ZERBITZUAK KONTRATATZEKO AZALA**

---

**KONTRATAZIO PROZEDURA:** Ohiko lehiaketa irekia

**ESPEDIENTEAREN ZENBAKIA:** 1. OPI – 2018

**A.- KONTRATUAREN XEDEA**

Eko-Parke Industriala proiektua garatzeko laguntza teknikoaren zerbitzuak eskaintzea.

**B.- ADJUDIKATZEKO AHALMENA ETA KONTRATAZIO ORGANOA**

Adjudikatze ahalmena OARSOALDEA, S.A. Eskualdearen Garapen Agentziari dagokio. Xede horretarako, egoitza Oartzunen (20180) Astigarragako bideko 2 zenbakiaren 2. solairuan (Mamut eraikina) du.

- IFZ: A-20458329
- Alderdi tekniko eta administratiboetarako kontaktuzko pertsona: [xsanchez@oarsoaldea.eus](mailto:xsanchez@oarsoaldea.eus)
- Kontratatazilearen profila: <http://www.oarsoaldea.eus>

Kontratazio-organoa agentziako zuzendari-kudeatzailea da.

**C.- KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA ETA LIZITAZIOAREN AURREKONTUA**

- Kontratuari dagokion lizitazioaren oinarritzko aurrekontua 21.559 (HOGEITA BAT MILA BOSTEHUN ETA BERROGEITA HEMERETZI) eurokoa izango da, gehi 4.527 (LAU MILA BOSTEHUN ETA HOGEITA ZAZPI) euro BEZaren kontzeptupean. Beraz, guztira 26.086 (HOGEITA SEI MILA ETA LAUROGEITA SEI) euro dira.
- Kontratuaren balio zenbatetsia hurrengo da: 21.559 euro (BEZa kanpo). Kalkulatzeko hurrengo metodoari erreparatu zaio:
  - Lizitazioaren oinarritzko aurrekontua (BEZa kanpo): 21.559 euro.
  - Aurrez ikusitako aldaketen zenbatekoa (BEZa kanpo): 0 euro.
  - Lizitatzaileari sari edo prima modura ordaindu behar zaion zenbatekoa (BEZa kanpo): 0 euro.
  - Luzapena (BEZa kanpo): 0 euro.
  - GUZTIRA BALIO ZENBATETSIA: 21.559 euro.

**D.- PREZIOA ZEHAZTEA, ORDAINTZEA ETA IKUSKATZEA**

- Prezioa zehazteko sistema: oroharreko prezioa.
- Prezioa ordaintzea: Zerbitzuaren zenbatekoa hurrengo moduan ordainduko da:

- Kontratua sinatzen denean: % 40
  - Lizitazio-iragarkian zerbitzuak eskaintzeko egutegia kontuan hartuta, 1., 2. eta 3. zereginak amaitutakoan: % 30
  - 4., 5. eta 6. zereginak bukatzen direnean eta behin betiko agiria entregatu ostean, Oarsoaldeak hartutakoan: % 30
- Banku-transferentziaren bidez ordainduko da faktura aurkezten denean.
  - Hitzartutako prezioen arabera, adjudikaziodunak kontratuarekin bat egiaz gauzatutako lanen, onartutako aldaketan eta OARSOALDEA, S.A.k idatziz ematen dizkion aginduen zenbatekoa jasotzeko eskubidea du.
  - Prezioak ikuskatzea: ez dagokio.

#### **E.- PROPOSAMENAK HARTZEKO EPEA.**

Proposamenak aurkezteko epea argitaratzen denetik zenbatzen hasita, 20 egunetan amaituko da. 14:00ak arte entregatzeko aukera izango da.

#### **F.- PROPOSAMENAK AURKEZTEKO TOKIA.**

Eskaintzak hurrengoari zuzenduko zaizkio: OARSOALDEA, S.A., Astigarragako bidea 2, 2 solairua (Mamut eraikina)  
20180 Oiartzun.

#### **G.- BEHIN-BEHINEKO BERMEA.**

Ez dagokio.

#### **H.- BEHIN BETIKO BERMEA.**

Lizitatzailleak kontratazio-organoaren alde eskainitako azken prezioaren % 5eko bermea (BEZa kanpo) osatu beharko du, SPKLk 108. artikuluan xedatutako moduren bat erabiliz.

#### **I.- ZERBITZUA ESKAINTZEKO EPEA ETA TOKIA.**

Epea: Zeregin eta fase guztiak gehienez 2019ko azaroaren 09rako amaituko dira.

Tokia: Adjudikaziodunaren instalazioak.

#### **J.- ALDAERAK ONARTZEA.**

Ez dagokio.

## K.- KAUDIMENA.

1.- Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa: Kontratuaren eremuan negozioen urteko bolumena gutxienez 32.338 eurokoa izatea, BEZa kanpo. Xede horrez, azken hiru urteetan ekitaldi onenari erreparatuko zaio (SPKLren 87.1.a artikulua). Nolanahi ere, Sektore Publikoko Lizitatuak eta Enpresa Saikatuaren Erregistro Ofizialean inskribapenak kaudimena egiaztatuko du, kontrakoa frogatzen ez den bitartean.

2.- Gaitasun tekniko edo profesionala:

a) Zehaztutako zerbitzuak eskaintzea. Gutxienez hiru urteko esperientzia ingurumen aholkularitzaren laguntza teknikoari buruzko zerbitzuak eskaintzen, industria-espazio urbanizatuekin zerikusia badute. Objektuaren xedeari buruz, azkeneko hiru (3) urteetan gauzatutako jarduerak zehaztu beharko dira. Horietan zerbitzua deskribatuko da eta datak nahiz zenbatekoa erantsiko zaizkio. Zalantza izanez gero, OARSOALDEA, S.A.k eskainitako zerbitzuen ziurtagiri formalak eska ditzake.

b) Teknikariak. Enpresako langileek, kontratua gauzatzeari atxikitakoek, unibertsitate-tituluak, graduak edo gradu ostekoak, izango dituzte. Horiekin ingurumen-kudeaketan edo - aholkularitzan ala kontratuaren xedeari zerikusia izanik, baliokidean lanbide-prestakuntza egiaztatu ahal izango da. Enpresaren barnean edo bertatik kanpo, teknikariak edo unitate teknikoak adieraziko dira, kontratuan parte hartu behar badute. Lizitatuak, kontratua gauzatzeko arduratuko diren pertsonen eta zuzenean lanean jardungo duten teknikarien titulu akademikoak eta profesionalak zehaztuko dira, baita kontratuaren xedeari eremuarekin zerikusia duen lanbide-esperientzia ere.

Lizitazio-eskaintzaren A gutun-azalean gaitasun-baldintzak betetzeari buruzko adierazpena sartuko da. Horretarako, Kontratazioaren Europar Dokumentu Bakarra (KEDB) aurkeztuko da eta gaitasuna egiaztatzeko atal honetan azaldutako dokumentazioa erantsiko da, kalitate-prezio erlaziorik onena duen eskaintza hautatzen denean, SPKLren 150. artikuluan xedatutako baldintzetan.

## L.- ADJUDIKAZIO IRIZPIDEAK.

Adjudikaziorako oinarritzat hartuko diren irizpide orokorrak honakoak dira: % 70 formularen bidez zenbat ezin daitezkeen adjudikazio-irizpideak eta % 30 kalitate-prezioaren irizpideak.

**Ikuspegi berriztatzailea, nagusiki ingurumen alderdiei dagokienean.**

Ikuspuntuaren kalitatea eta berrikuntza-maila, batez ere ingurumen alderdiei dagokienean. Erreferentzia-modura, proposatzen diren naturalizazio-jardueretan honako irizpideak aplikatuko lirateke: erabilitako materialen bizi-zikloa, jarduerak itzulgarriak izatea, uraren bizi-zikloaren kudeaketan jardueraren ekarpena, artifizial bihurtutako eremuaren eta egoera naturalaren arteko trantsizioa, poligonoaren barnean landareta eta faunaren igarobide jarraituak diseinatzea, egiturak eraikitzea proposatzen bada, bio-ingeniaritzako sistemen bitartez ebaztea, poligonoetan dauden jardueren ondorioz sortutako hondakinak eta produktuak banatzeko garraio-bitartekoak konpentsatu/kudeatzea. **25**

<b>Lanean eraginkortasun eta efizientzia</b>	Helburuak lortzeari begira lan-metodologia eta zereginen nahiz baliabideen moldapena. Zehatz-mehatz esanda, proposatutako esku-hartzeen ezaugarriei eta jardueri buruzko azalpenaren proposamena balioetsiko da, horretatik abiatuta, poligonoko erabiltzaileei, landa-eremukoei eta, orokorrean, herritarrei adierazteko eta horiek ulertzeko erraza bada. Halaber, proiektuaren arrakastarekin zerikusia duten alderdi kritikoak ebaluatuko dira eta gainditzeko proposatutako konponbideak landu ere bai.	<b>20</b>
<b>Atxikitako langileak</b>	Antzeko ezaugarriak dituzten proiektuak ezartzeko orduan, esperientzia eta ezagutza. Nagusiki honako arloetan ezagutza eta eskarmentua balioetsiko dira: finantzazio-bideak, nahasitako eragileen koordinazioa eta egikaritze-kudeaketa.	<b>10</b>
<b>Enpresa partaideak</b>	Zuzenean parte hartzeko industria- eta landa-enpresen eta -jardueren proposamena, irizpidetzat hartuta honakoak: kopurua, proiektuaren eremuan garatutako jarduera-motatan hedapena, tamaina, poligonoaren barruan kokapen estrategikoa eta parte hartzeko positiboak izan daitezkeen bestelako alderdiak. Halaber, eragileen partaidetza-sistemaren proposamena, ekarpen aktiboagoa eta kalitate handiagoa lortzeko.	<b>10</b>
<b>Artearen egoera</b>	Dauden edo garatzen ari diren proiektuen, agirien eta estandarren aurretiazko artearen egoera eta egoera kritikoa, baita proiektuari ekarpena ere.	<b>5</b>

Balioztapen teknikoaren % 50 gainditzen ez duten eskaintza teknikoak (A gutun-azala) balioztapen-prozesuan baztertuak geldituko dira.

Prezioak % 30eko haztapena izango du.

B gutun-azalari dagozkion puntuak kalkulatzeko formula hiruren erregela alderantziz proportzionala izango da. Hala, gutxieneko prezioari gehieneko puntuak emango zaizkio: 100en gainean 30 puntu. Puntuak hamartarrik gabe emango dira eta kopururik hurbilenera biribilduko dira.

Ohiz kanpoko edo neurritz kanpoko eskaintzei dagokienez (SPKLren 149. artikulua):

- Administrazio publikoen kontratuei buruzko legearen arautegiak 85. artikuluan xedatutakoari erreparatuko zaio.

- Neurritz kanpokotzat joko da proposamen oro, ehunekoak aurkeztutako proposamen guztien beharpen-ehunekoen batez besteko aritmetikoarekiko gutxienez hogeitunitate gainditzen baditu.

Proposamena ohiz kanpoko edo neurritz kanpokotzat jotzen bada, SPKLk 149. artikuluko 3. eta 4. idatz-zatietan xedatutakoa kontuan hartuko da.

Puntuak: (Eskaintzarik merkeena / aurkeztutako eskaintza) X 30 puntu

**M.- ZEHAPENAK.**

Ez dagokio.

**N.- LUZAPENAK.**

Ez dagokio.

**O.- LANAK ZATI BATEAN HARTZEA.**

Ez dagokio.

**P.- ASEGURUAK**

Kontratistak lanean jardungo duten langileei dagokienez, lanean istripuei buruzko aseguru eta langileen gizarte-aseguruak izango ditu indarreko araudiaren arabera.

**Q.- KONTRATUA ALDATZEA.**

Kontratua administrazio-baldintza berezien pleguak 13. atalean aurrez ikusitako arrazoiengatik alda daiteke.

**R.- INFORMAZIOA HONAKO ARLOETAN: ZERGAK, INGURUMENA, EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNA, ENPLEGUAREN BABESA, LAN-BALDINTZAK ETA LAN-ARRISKUEN PREBENTZIOA.**

Kontratu honetan interesdunek Gipuzkoako Foru Aldundian zergapetzeari buruzko informazioa lor dezakete.

Kontratu honetan interesdunek Eusko Jaurlaritzako Lan eta Justizia Sailaren Enplegu eta Gizarteratze Zuzendaritzan lan-baldintzen eta lan-arriskuen prebentzioaren arloan indarreko xedapenei buruzko informazioa lor dezakete. Izan ere, horiek kontratua gauzatzean aplikatu beharko dira, kontratuaren pleguetan aurrez ikusitako klausula osagarriekin batera.

Era berean, informazioa lor daiteke Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Antolamendu eta Etxebizitza Sailaren Ingurumen Sailburuordetzan, Ihobe, S.A. sozietate publikoaren bitartez, kontratua gauzatzean ingurumenaren arloan indarreko xedapen aplikagarriei dagokienez eta horiei kontratuaren pleguek aurrez ikusten dituzten klausula osagarriak gehituko zaizkie.

Era berean, EMAKUNDE-Emakumearen Euskal Erakundea erakunde autonomoan gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren arloan indarreko xedapenei buruzko informazioa eskura daiteke, besteak beste, 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako denak; 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, emakumeen eta gizonen berdintasun eraginkorrerako denak. Horiek kontratua gauzatzean aplikatuko dira, kontratuaren pleguetan aurrez ikusitako klausula osagarriez gain.

**S.- AZAL HONETAN ETA PLEGUAN ADIERAZITAKOEEKIKO BESTELAKO ZEHAZTAPEN OSAGARRIAK.**

<b>Irizpideak</b>	<b>Lan-merkatuan sartzea</b>	<b>Emakumeen eta gizonen berdintasuna</b>	<b>Lan-arriskuen prebentzioa</b>	<b>Ingurumenari buruzkoak</b>
<b>Kontratuaren xedea</b>				
<b>Gaitasun tekniko eta profesionalaren irizpideak</b>				
<b>Zehaztapan teknikoak</b>				
<b>Adjudikazio-irizpideak</b>				X
<b>Gauzatze-baldintza bereziak</b>	X	X	X	X